

EUSKAL DIALEKTOLOGIAREN ATARIAN

Patxi URIBARREN

Gaiaren aurkezpena

Bi arrazoi nagusik bultzatu naute aipaturiko gaiari buruz gogoketak egitera. Alde batetik, idazlantxo hau hain hizkuntzalari eta euskalkien azterlari sutsua dugun P. Lafitte jaunaren omenaldirako idatzia izateak; bestetik, azken garai honetan Euskal Herrian zehar gure mintzaera desberdinen altxor agortezina sakontasunez aztertzeo gogo biziak ikusteak.

Hain zuzen ere, gaur egunez, hasia dugu Euskaldunok gure dialektoen (euskalkien) azterketa lana. Hori dela eta euskalkiak zenbat, zeintzu eta nolakoak diren aztertzeraz jo aurretik egoki etorriko zaigu dialektologiari buruzko zenbait ikuspuntu hausnartu eta kaleratzea, horrek gaia sakonetik aztertzeo bideak eskeiniko dizkigu eta. Kontutan hartu behar dugu, hartu ere, hasera haseratik gure euskalkiok euskararen dialektoak baino ez ditugula.

Euskalki horiek, bestalde, ez ditugu hor nonbait kasualitate hutsez sorturiko zerbaitzu. Hor ditugu, bai, begibistan gaur egunez, baina beraien zergatiak eta iturburuak aztertzen ahaleginak egin beharra dugu. Azterketa horretarako gai apur bat eskeintzea litzateke lerro hauen asmo nagusia.

Dialektoen izatea eta definizioa

Dialektoen izateaz jabetzeko, sarritan bestetara uste baldin bada ere, ez daukagu hizkuntzen inguruan aparteko azterlanik egin beharrik. Ardura eta arreta gutxienezko bat hartu eta hizkuntzetara hurbildu den edonork bat batean ikusi izan du, sarritan harritzeko zerbait iruditu bazaio ere, hizkuntza horien Lurraldeetako barrutian hizketa desberdinak erabiltzen direla.

Askotan, nahiz eta hiztunak giza-talde ber-bereko partaideak izan eta denek hizkuntza bakarra eta berdina darabilela uste, beren arteko mintzaerak nahiko desberdinak agertzen zaizkigu. Halako kasuetan, dialekto desberdinez mintzatzen direla esan ohi dugu.

Zer genuke, bada, dialektoa? «Hizkuntza batek Lurralde konkretu batetan, isoglosa batzuei jarraituz hartzen duen era mugatua dugu. Isoglosa horien ugaritasunak, dialektoaren bakartitasuna tajutzen du. Hala ta guztiz ere dialektoen mugak zehaztu-ezinak izan ohi dira».¹

Dialektoek ematen diguten Lurralde Lurraldeko era desberdinezko aurpegi hori, bi faktore ezberdinen eragipenek sortua izan daiteke: *Hizkuntza bakarra zenbait arrazoinen eragipenez sakabanatuz joateak sortua* edo eta *hizkuntza desberdinak, elkarren ondoan egon eta bakar bat egiterakoan hor hemen gelditutako aztarnek osotua*.

Hizketa desberdin horien sortzea, bestalde, herriaren historia-ibilaldian zehar eta prozesu luze baten altzoan egin ohi da. Beraz, gizonaren historiari hertsiki loturik agertuko zaigu. Hori dela eta komenigarri izango dugu gizartearen eta hizkuntzaren ibilaldi korapilotsu historikoa batera aztertzea. Hau, danau kontutan izateak zenbait oztopo kendu eta argirik ugari eskeiniko digu!

Dialektoen oinarrian gizartea dago

Hizkuntzalari gehienek, era batera edo bestera diotenez, gizartearen ibiladi historikoak bultzatzen eta tajutzen du hizkuntzaren bizitza. Ez dugu, inoiz ahaztu behar hizkuntza dugula gizonok elkarren artean harremanetan jarri eta elkar ulertzeko medio nagusia.

Beraz hizkuntzen eta gizonen bizitzek elkarren artean gorapilotsu loturik dihardutenez, komenigarri izango dugu hizkuntza baten inguruak aztertzerakoan, hizkuntza hori harremanetarako erabiltzen duen giza - taldearen une bakoitzeko egoera historiko konkretua ez ahaztea.

Azken batetan, dialektoen oinarrian gizon ezagun batzuk osoturiko gizarte egin bat izanik, nahitaezko iruditzen zait, asmakeria antzuetan astirik ez galtzeko, errealitate horretan finkatzen diren abiapuntu batzu gogora ekarriz jokatzeari, gure hausnarketek dialekto horien iturburu garbietara eramanez gaitzaten. Hori horrela, zera esan genezake:

a) *Ez dago hiztunen artean berdintasun osorik*: Bizitzako beste zenbait alorretan egunero frogatzen dugun gizonen arteko desberdin izatea, argi agertzen zaigu hizkuntz-alorretan ere. Guraso berdinen semeak izan arren denetan berdinak diren pertsonak aurkitzea ezinezkoa gertatzen zaigun bezala, hizkuntz alorretan eta berdintsu jazotzen da; ezin berdintsu alor eta une guztietan mintzatzen den hiztunik aurkitu. Hori dela eta onar genezake oso osoan, zenbait azterlan sakon eginda gero ondorio gisa Martinet jaunak dioskuna: «Ez da inongo Lurraldean hizkuntz alor guztietan beti berdintsu mintzatzen den giza-elkarte linguistikorik ezagutzen. Gizon gehienak, egoera

1. Fernando LÁZARO CARRETER: *Diccionario de Términos Filológicos*. Madrid (1977).

konkretuetako premien arauera, hizkuntza-bakarreko mintza-molde desberdinak erabiltzeko gai izan ohi dira»².

b) *Ez dago hiztunen artean gaitasun berdunik*. Oraindik gehiago ere esan genezake, hots, giza-elkarte bakoitzeko partaide guztiek ez dutela hizkuntza erabiltzeko kapazitate berdina. Chonsky-k, berak ere, bere teorian fenomeno multzokatzearen aldeko jokera agertzen baldin badu ere, onartu egiten du hizkuntza berdineko hiztunen arteko gramatika-moldeetarako desberdin izate hori. Eta baita ere, mezuaren interpretapen semantikoak hiztun bakoitzaren ezagupen horrek baldintzaturik egotea.³ Badirudi, hau hain agiriko zerbait izanik, aipatu beharrik ere ez zegoela. Hala ere Kontutan hartzekoa dugu, zenbaiten huts egiteak (adibidez, hizkuntzen irakaskuntza antolatzean) hau eta antzerakoak ez gogoratzetik sortzen dira eta.

c) *Hizkuntzaren bizitzako esentzia herriaren historian datza*. Izan ere, hizkuntza ez dugu hor nonbait gauetik goizera bat-batean sortutako landara arraroa. Hizkuntzaren ibilera historikoa, mintzatzeko erabiltzen duen gizartearen barneko oinarrian dauden ekonomia eta giza-taldeei loturik egotean datza. Hori dela eta, gizarte elkartu nazional berean hizkuntz-mota desberdinak ager daitezke. Ezin da, ba, zientifikoki hitzik egin herri osoko aintzinako *hizkuntza bakarrari* buruz. Fikzio hutsa izango litzateke, hizkuntza nazionala gizatalde eta giza-moetatik kanpo aztertzea. Hemen zera aitor genezake: Hizkuntzak bere barneko mendez mendetako altxorrari esker, herriaren historiari argia ematen dio eta historia horrek hizkuntzaren aldaketak eta ulertzeko bideak eta datuak eskeintzen dizkigu. Hizkuntzaren izatea, azken batetan, herriaren historia bizia baino ez dugu.

d) *Hizkuntza ezin da laborategian aztertu*. Hizkuntzaren ibilaldi historikoa eta giza-elkarteena hain elkarlotuak izanik, ezin dira elkarrekin zerikusirik ez balute bezala aztertu. Hizkuntzalari batzuen akatsa, hizkuntzak gizartearekin duen lotura hertsia hori kontutan ez hartzea izan da. Hori dela eta, Errusoek, Txekoek (Pragako eskolak), Jakobson eta Martinet-en jarraitzaileek garrantzi handia eman diote hizkuntzaren giza-inguruari. Ahalegin handiak egin dituzte hori azaltzen. Hauen eritziz hizkuntza ez dugu, gure asmakizunek aditzera eman nahi diguten errealitate kutsatugabea edo, eguneko bizitzan gizonaren izate konkretuei loturik agertzen zaigun errealitate mugatua baino.

e) *Hizkuntza hiztunen eskutan dago*. Hizkuntzak hiztunen ahoan hartzen du bere bizitza eta izatea. Hori dela eta garrantzi handia izan dute hiztunen arteko jokerekin: bizimodu konkretuekin: ofizioek, giza-mailek... hizkuntza bakarreko zatiketetan. Zenbait arazo sortu izan dira hortik: Dialek-

2. André MARTINET, *Elementos de Lingüística General*. Madrid (1965) 182 orr.

3. V. SÁNCHEZ de ZAVALA, comp., *Semántica y sintaxis en la Lingüística transformatoria*. I, Madrid (1974) 282 orr.

toen arteko hizkuntzak («komunak» deituak) eta hizketa bereziak, hots: *hizkuntz-inguru kanpotarretako barremanetara moldatuak* eta *giza-mailetako barremanetan erabili ohi direnak*. Hau da, hiztunek tajutzen dute hizkuntza eta tokian tokiko eta unean uneko erabilera ezarri. Hala ere, hiztun bakoitza giza-elkarte nagusiagoko partaide izanik, giza-moldeek mugatua izan ohi da bere erabilera konkretu hori. Hiztunak ezin du hizkuntzarekin nahi duena egin, gizarreak baldintzaturik baitago. Horri esker, giza-molde sozialak aldatu arren, hizkuntzak lehengoan jarraituko du, bizimodu berriari erantzuteko beharrezko zuzenketak eginez.

Dialektologiari buruzko eritzi nagusienak

Dialektoak gizarrearen ibilaldi historikoari hertsiki loturik direla esan ondoren, berehalaxe datorkigu ondoko galdera: baina nola aztertua izan da historian zehar arazo hau? Benetan ba du garrantzirik gaur egunez honetaz mintzatzen aritzeak?

Eta oraingoa ere, nahiz eta ezin esan gure errefracuak dioena «*zenbat buru hainbat aburu*» oso osoan betetzen denik, nahiko sakabanaturik agiri zaizkigu eritziak. Eritzi hauek, gizonok ingurumariko morroi izanik, korrante linguistiko jakin batzuen inguruan sorta ditzakegu:

a) *Ipar Ameriketako linguistika estrukturalak*, geografia eta giza-bizitza tarteko zirela, hizkuntza bereko partaideen artean sortzen ziren zatikatzeak azpimarratu zituen, *Hizkuntza standard-a* (hezia), *sub standard-a* (sendikoa) eta *tokiko dialektoak* bereiztuz. Bonfield-ek, berak ere, hizkuntza standard-a interesatzen zaiolako halako bereizketak bitxikeriazat jotzen dituen arren, ofizio desberdinetako hiztunen arteko desberdintasunak aitortzen ditu.

b) *Linguistika deskriptiba deitua delakoak* giza-barneko talde desberdinen eta partaide bakarren arteko berezitasunak alde utzirik, giza-talde baten une historiko batetako hizkuntz-sistema aztertzen du. Beraz, zertzo bat baztaturik izango du dialektologiaren mundua.

c) *Linguistika sinkronikoak*, alderantziz, linguistika deskriptibaz gainera beste zenbait ikerketa alor ukitzen ditu: Adibidez, *dialektologia sinkronikoa* deritxona, hau da, *hiztun bakarren* eta *hiztun multzatuen* arteko ohitura linguistiko desberdinen azterketa sistematikoak.

Hori dela eta Chomsky-ren bereizketa kontutan hartzea komeni zaigu: Hizkuntzen konpetentzia bikoitza da: *substantiboa*, edozein gizonek (homo sapiens) hizkuntzarako duen ahalmena eta *formala*, motibapen sozio-kulturalek baldintzatzen dutena, aldakorra, beraz, mezua kodigo batean zein bestean ahalbideratzen duena.

Beraz ezin ditugu inolaz ere hemen orain Robin Lakolf-en hitz hauek ahaztu behar: «Edozein hizkuntzalarik, nahiz honelakoa nahiz horrelakoa izan

bere ikuspuntu teorikoa, hizkuntzaren gorabeherak egoki eta zintzoki aztertu nahi baldin baditu, ezin ditu inguruak sortutako faktoreak ahaztu».⁴

Hizkuntz Pragmatika delakoa, ba, hiztunen giza-egoera desberdin guzti horiek kontutan direla *kodifikatzeak* egitea izan da. Izan ere, Hizketaren ekintzak, erregela neurtuak ditu, beraien artean sozio - kulturalak bide direla, noski.

Hizkuntzek berezko erregelak dituzte

Dialektoei buruz egiten ari garen hausnarketa honetan, beste konzeptu jakingarri batekin egin dugu topo, hots, hizkuntz-erregelekin. Hizkuntzek, historian zehar gizartearekin eskuz esku badihartute ere, beren dinamika propioa dute. Hortik sortzen da hizkuntzen barneko dinamika hori tajutzen duten erregelak ezagutu beharra. Jarraian, ba, erregela horiek zer-nolakoak azaltzen saiatuko naiz.

a) *Hizkuntz-erregelak ez diraitsuak*. Lehenago esandakotik ateratzen denez (hizkuntzak gizonaren izateari loturik diren neurri berean, hau bezala aldakorrak izango baitira) gogotan hartu behar dugu hizkuntzen bizitzan erregelak baldin badira ere, hauek ez ditugula inolaz ere, gizadian ohi den bezala (erregela fisikoak eta nahitaezkoak eta aldaezinak izaten dira)itsuak, hizkuntz-normek ez baitute haien antzeko aplikapen generalik eta osorik. Hizkuntzek, bada, ez dira inoiz matematika, fisika edo logika huts izango.

b) *Denborak eta espazioak baldintzatutak dira*. Oraindik gehiago: fonetikako erregelak deitzen eragipena, era nahasi handi batetan denborak eta espazioak baldintzatua dugu. Nahiz eta une historiko berean eta lurralde berean aritu, fonetikako erregela horiek ez dira berdin ezartzen tipo berdineko hitz guztiei. Adibidez: Parkatu/Bake edo eta ZuzenKI/OnGI.

c) *Erregela horiek aldakorrak izan ohi dira*. Lege fonetikoaren eta berauen hedapenaren arteko erlazioa aldakorra eta kasuala izan ohi da. Schuchardt-ek, *dialektoa* zer den galdetu ondoren (neogramatikoek ere erabilia zuten hitz hori) argi eta garbi frogatzen digu ez dela inolaz ere bizitzarekin zerikusirik ez duen asmakizun abstraktoa edo. Aurkitu ere, *Hizkuntza* edo eta *Dialekto* berbera duten gizataldearen barnean, sekua, adina, kultura eta abar direla bide, hainbat *hizketa indibidual* desberdin aurkitzen ditugu. Baina nola sortu ohi da hori?

1) *Modaren indarrez*: Hizketa desberdin horiek eragipena dute elkarrengan, hizketa-modak indar handia baitu. Baina beti elkarren arteko desberdintasunak guztiz desagertzera heldu gabe.

2) *Pertsona «ospetsu» eragileen indarrez*. Denok dakigunez, sarritan, pertsona eragileen (giza-elkarteko beste hiztunek ospetsutat jotzen dituzte-

4. Ibidem.

nean, noski) mitzaera edo hizketa gogo biziz eta indarrez jarraitua izaten da eta horrek erraz sortzen ditu hizkuntzarengan aldaketak eta aipaturiko erregelak aplikaezin bihurtzen dituen izugarritzko nahasketak. Hau imitazioaren eragipenez egin ohi da. Schuchardt-ek garrantzi handia emango zion honi hizkuntzen nahasketak ikertzerakoan.

d) *Hizkuntzen sailkaketa zerbait erlatiboa da.* Esandako guzti hori kontutan hartzen baldin badugu, hizkuntzak sailkatzea, *dialekto*, *subdialekto* eta *idioleto* etan, zerbait erlatiboa dela ikusten dugu. Dena dela, lege fonetikoaren *nahitaezkotasun-eza* onartzea, dialekto, subdialekto eta idioleto horiek onartzea beste litzateke, nahiz eta bereizketa horretan, fonetikoak aparte, beste zenbait elementu ere tarteko izan.

e) *Hizkuntzek ez dituzte muga zehaztuak.* Schuchardt-ek indar berdinez gaitzetsi ohi zuen neogramatikoez erabiltzen zuten *aldi linguistiko* delako hori, haiek hizkuntzen bizitzako *aldi berean lege fonetikoak betebeharrezkoak* zirela defendatzen zuten eta.

Hizkuntzen arteko muga geografiko zehatzik izaten ez denez, hizkuntza baten barneko mugaketa kronologikoak ere geure buruetako asmakizun hutsak izaten dira: egin ere fase batetatik bestera aldatzea igarri gabe egiten da, dialekto batetik besterakoa bezala. Horregatik ezin dugu zehaztu noiz bukatzen den aldi bat edo eta noiz hasten bestea, dialekto bat non bukatzen den eta non hasten bestea ere tajutzea eginezina den bezala.

f) *Hizkuntzen egoerak ez dira berdinak izaten.* Neogramatikoez, doinu-aldaketak nahitaezkoak egiteko, hizkuntz-egoera berdinak aipatzen zituzten, baina Schuchardt-en eritziz ez da halako egoera berdinek inoiz gertatzen, hitz bakoitza inguru berezian aurkitzen delako, eta hori doinu berdintsua itxuraz beste hitzen pareko agertu arren.

Aldaketa fonetikoetan, eduki ere, garrantzi handia daukate hizkuntz-gaiaren erabilerak, hots, maiztasunak nahiz urritasunak. Sarri erabilia den hitz batek gutxi erabilia denak baino aldaketa ugariagoak eta sakonagoak edukiko ditu. Alderantziz, kanpotik sartutako edozein aldaketa fonetikok ezin izaten ditu erraz erabiliak diren hitzak aldatu.

g) *Hizkuntzen erregelak erabiliaren erabilez sortuak dira.* Honetaz eta argi mintzatzen zaigu Schuchardt. Hizkuntzaren aldaketak ez direla guk asmatuz ezarritako erregela-nagusiei jarraituz egiten, hiztun konkretuen erabileraren eragipenez baino frogatzen digu. Hau ere kontutan hartu beharko dugu hizkuntz-erregelen duten balioa eta ez gehiago emateko.

Hizkuntzen baitan ikaragarritzko automatismoa izanarren ez da itsumutuan jokatzeko. Aldaketak pertsonen erabileraren fruitu izaten dira eta hiztuna nolako egoeratan aurkitu halako aldaketa bereziak sortzen dira. Aldaketok eta hizkuntzen arteko desberdintasunak, neurri handi batetan, giza-egoera historiko konkretuen ondorio izango ditugu. Berez giza-mintzamena bakar

bakarra dugu toki guztietan. Hori dela eta hizkuntzen artean antz handiak daude eta batzu ikertzeak besteak ulertzen laguntzen digu.

h) *Ondorioak:*

1) Hemen, ba, erdibide batetik abiatu beharra dugu. Neogramatikoek eragipen handiegia ematen diete erregela fonetikoari. Schuchardt-ek, ostera, hainbatetan gaitzetsi egiten ditu hizkuntz-aldaketan oinarriak, hiztun konkretuen jokarak larregi azpimarratuz.

2) Neogramatikoek, hizkuntzaren izatea hausnargaitzat hartu eta aldatu erregela jakin batzuen bidez egiten direla ikusiz, hizkuntzaren bizitzako eboluzioa zehatz mugatuz josten dute, hizkuntzek historian zehar berdintsu irauten baitute. Schuchardt, ostera, hiztunen hizketa desberdinetatik abiatzen da, hizkuntzaren aldakortasunera heltzeko zenbait adibide konkretu tarteko dituela.

3) Schuchardt-en eta neogramatikoen arteko desberdintasuna ez dela soilki filosofikoa esanenez. Helburu eta metodologia ezberdinak erabiltzen dituzte. Lehenak *hizketa*, hau da, une konkretu batetako hizkuntzaren izate konkretua hartzen du aztergaitzat eta besteak, hizkuntzaren arduraren batipat, mendez mende iraun duen sistemaren arduraren.

4) Zer esan ba? Alde batetik hori ditugu gehienetan zehatz bete ohi diren oinarriko zenbait erregela, eta bestetik erregela horiek ez direla beti automatikoki eta aldi guztietan berdinean betetzen nabari zaigu. Badirudi oraino honetan egia ez dela ez gorri ez zuri, gorri-zuri edo *bori* baino.

Hizkuntzaren aldaketak, batez ere fonetikoak, dudarik gabe, erregela jakin batzuei jarraituz egin ohi dira, bai, baina erregelak betetze hori ez da zehatz-zehatza, maila batetako baino, betetzerakoan izakera pertsonalei eta loturik egiten da eta.

Dialekto motak

Ikusi izan dugunez, hizkuntzak nahiz eta beraien barneko dinamika berezia izan, gizarte konkretu batzutan gorpuzten dira eta inguru geografikoak eta gizarteak baldintzaturik aurkitzen dira. Dialektoak aipatzean eta aztertzean ere, bi eragipen horiek, geografikoa eta gizartekoa kontutan ditugula jokatu beharra dugu. Eragipen horien arauera, bi motako dialektoak izango baititugu: dialekto *horizontalak* eta *bertikalak*:

a) *Dialekto horizontalak* edo geografikoak, hizkuntzaren zabalera geografikoak baldintzaturik sortutako *hizketa bereziak* ditugu. Inguru desberdinek, ibilera historiko desberdina sortu izan dute eta hizkuntza berberaren barneko eboluzio desberdina ekarri. Desberdintasun hau etendura egite-raino heltzen denean, hizkuntz-zatiketa sortu dela esan ohi da. Ikus, adibidez, hizkuntza erromanikoak: *latinetik* gaztelania, frantsesa, italianoa, galego-


portugesa, katalana, ...sortu ziren. Hizkuntza moderno hauek, zenbaiten eritziz, zientifikoki, oraindik latinaren dialektoak izango genituzke.

b) *Dialekto bertikalak*, Giza-maila desberdinetako hizketen desberdintasun finkatuari deitzen dizkiegu. Hauen artean entzunenak: *hizketa kultoa* eta *hizketa arrunta* deituak ditugu. Baina beste maila berezi batzu ere izan daitezke: *lanbide desberdinetako hizketak* edo *eta talde berezien hizketa mordoi-loak (jergak)*.

Hizkuntzaren funtzionamendua

Dialekto hauek nola sortu ohi diren eta sakonetik ulertzeko, beharrezkoa zaigu, baita ere hizkuntzaren funtzionamendua ongi ezagutzea eta funtzionamendu hori kontutan harturik jokatzeko. Horrek asko lagunduko digu dialektoen barneko mamia ongi jasotzen.

Begira nola agertzen zaigun hizkuntzaren funtzionamendua kuadro honetan.



A/B/C/D/ = Komunikazioa egiterakoan jasotako hizketa neurtua.

a/b/c/d/ = *Leben abstrakzioa*: hizketa neurtu hori, aurrez erabili izan den ereduaren argiterazte eta egi-bihurtzeratzea da. Hizketa dugu, baina une berezi eta pertsona desberdinen une konkretuetako *aldagarrietatik at harturik*.

a'/b'/c'/d'/ = Hizkuntzaren barneko egitura nahitaezkoak adierazten ditu, ohiturak eta alde utzirik. Elkarte linguistiko osoaren eremuetako elementu berdinak mugatzen dituen da.

Normatik Sistemara aldatzerakoan, aukerako edo ohiturazko diren elementu guztiak erazten dira. Au da, *aukerazko aldagarriak* eta *konbinaketako aldagarriak* uzten dira, nahitaezko bereizgarriak (funtzio pertinentea) zain-tzen direla.

Honako hau jazo obi da:

SISTEMA: *Oposaketa funtzionalen* bilkura da. Marka bereizgarriez osotua.

NORMA: Sistemaren *egiterazte taldetua* (kolektiboa) da; bere barnean sistemaz gainera giza-taldearen ohitura ezbeharrezkoak (–pertinenteak) ditue-
nez *gizartearen hizkuntz-obiturak* adierazten ditu.

Norma soziala eta *sistema eskuartzen ditu*; Hau da, guk erabiltzen dugun norma *inguruko gizartearena* eta *hizkuntz-sistema baten barruan sortua* da.

HIZKETA: *Normaren egiterazte indibiduala* dugu. Norma, berdina izanik, gizatalde batetako pertsonak, bakoitzak espresibide berezien bidez, egin ohi duten hizkuntz-erabilera adierazten du.

Norma indibidualak eta *norma sozialak* eta *sistema eskuartzen ditu*. Hitz egiten dugunean: *sistema baten barruan gizarte obituren arabera* geure era bereziz, EGITEN DUGU.


Beraz, *hizkuntzaren oinarrian sistema* dugu: *Euskal sistema*, euskara beste hizkuntzetatik bereizten duten bereiztasunen bilkura da. Horren ondoan *euskal norma* agertzen zaigu: euskara hori alderdi handietan konkretatzen den era nagusia. Eta *hizketa* konkretatze hori adierazteko hiztunek hartzen dituen bide desberdinak.

Guk ez dugu sistema bera ikasten, sistema horren elementu orokorrak erabiltzen baino. Sistemak muga orokorrak eskeintzen dizkigu, besterik ez. Beraz,

HIZKUNTZA: Eredu ideala. Sistemak adieraziko luke.

EUSKALKIA: Eredu soziala. Normak adieraziko luke.

HIZKETA: Erabilera indibiduala. Euskalki barneko euskararen erabilera pertsonala



BERAZ:

–SISTEMA NORMAren bidez HIZKETA n gorpuzten da.

–HIZKETA aldatuz NORMA aldatzen da eta SISTEMAren gan eragi-pena.

a) *Aldaketaren pausoak:*

- 1) *Hiztunak* bide berria hartzen du.
- 2) *Gizarteak* bide berri hori onartzen du.
- 3) *Hizkuntzaren sistema aldatu egin da* (barneko aldaketa sakona egin delako).

b) *Definizioak:*

Sistema: «Elkarrekin lagunkide diren elementu linguistikoek multzoa da».

Norma: «Gramatikaren erabilera zuzena orokorki edo konkretuki jautzen duten ezaugarri linguistikoek multzoa da».

Hizketa: «Pertsonen gogoko eta adimeneko ekintza indibiduala da».

c) *Ondorioak:*

–Hori dela eta edozein hizkuntzaren eremu-barrutian norma desberdinak sortuko dira eta horiek hizketa bereziak ekarriko dituzte.

–Hala ere, nahiz eta gizarte-egoera soziala hainbatetan arin aldatu, hizkuntza ez da neurri berean aldatzen. Hizkuntza aldagaitza da eta horri esker ez zaigu elkar ulertzeko nahasterik sortzen gizarte-aldaketak hain handiak izan arren.

Nola erlazionatzen diren dialektoak

Gizarteak hizkuntzaren bizitzan hainbesteko eragipen handia izanik, sarritan gizatalde batek, beste baten hizketako zerbaite hartu egiten du, elkarren alboan edo elkarrekin harremanetan direlako. Pertsonen artean ere askotan jazotzen da elkarrenganako eragipen hau, honelako edo halako hizketari toki berria egiteraino.

Gogora dezagun zer ari den jazotzen gaur egun Bizkaiko zenbait tokitan: /-ekin/ erlazio atzizkia geroago eta zabalagoa egin zaigu, /-gaz/ baztertuz. Honetan eragipen handia dute, dudarik gabe, irratiek, abestiek, liturgiak,...

Berdintsu gertatzen da zaharren hizketa gazteen ahotan aldatuz doanean. Hala nola oraindik euskaldun diren zenbait herritan gaur egun ez da bereizten *dizut/zaitut* edo eta *daikelleike* aditz formen artean. Eta honela beste zenbait eta zenbait kasutan.

Norbaitek uste izan dezake, bestalde, halako aldaketak une konkretu batetan edo bat batean sortzen direla. Baina ez dago halakorik. Hizkuntz-aldaketak astiro eta aldi luzearen buruan gertatzen dira. Eta normalki aldaketa hori azkeneraino egiten ari den tartean nahaste batetan murgildurik biziko gara.

Halako zer bait izango dugu, seguraski euskara batuaren kasuan ere. Aldaketa, astiro astiro egingo da, norma batzu erantziz eta beste batzu jantziz. Biren bitartean bai bata (zaharra) bai bestea (berria) elkarren ondoan batera izango dira.

Hori dela eta euskalkien arteko mugak ere ez dira zehatz-mehatzak eta argi taxutuak izango. Euskalkiak sistema berdinetik sortutako norma desberdinak direla onartzen baldin badugu, sarritan urrutiko bazter desberdinetan norma berdina erabili ohi dela ikusi ahal izango dugu. Eta alderantziz, elkar joka dauden mugetan norma desberdinak agertuko zaizkigu. Lehen kasuan jatorri berdina gogoratuko digute; bigarrenean, elkarren arteko nortasuna bereiztu nahiaren indarra.

Sarritan, gainera, norma hauen eremuak, hiztun desberdinen mugainguruetan, elkarren artean kateaturik edo nahasturik agertuko zaizkigu, batek besteari eragipen egiten diola.

Muga geografikoak mapetan egiten dira eta kito. Baina muga linguistikoak ezin dira hala egin, nahiz eta inguru geografikoak eragipen handia izan euskalkiak sortzerakoan eta berauen iraupenean.

Euskalkien mundua aztertzerakoan izate labankor hori kontutan dugula ekin beharko dugu, hizkuntza, itsasoko olatuen antzera, hemen aurrera eta han atzera, orain gora eta gero behera jokatuz agertzen zaigu eta.

Azken hitzak

Lantxo honetan laburra izan behar eta zenbait pentsamendu laburki plazaratu baino ezin izan dut egin. Euskaldunok lur-sail zabalak ditugu haitzurtzen edo jorratzen ekiteko. Nere lantxo hau izan bedi beste zenbait oihan ilun honetan bideak urratzen bultzatzeko.

Bibliografia

Alvar, CATALÁN, COSERIU, G. de DIEGO, GRANDA, JORDAN, I. MORALES, MARCOS, M. PIDAL, SALVADOR, Abad: *Lecturas de Sociolingüística*, Ed. EDAF 14, Madrid, 1977.